

# Ateraldiak

Aspaldiko irakurketak gogoan, gaurkoak esku artean

JON KORTAZAR

Udarako proposatuko di-tudan liburu berri bik nire euskarazko lehen irakurketak ekarri dizkide gogora. Umorezko liburuak dira, arinak, agian apalak, baina irakurketa errazaren alde eginez, orriak gustura pasatzeko beta eskaintzen dutenak.

Poesia argitaratzeko an-bizioarekin sortu zen Balea Zuria argitaletxea, genero horri bultzada on bat emanez, beren argitalpenen duintasunaren bi-dez. Baina beste genero batzuk ere eman dituzte plazara: saia-kera, itzulpenak (nola ahaztu ‘Moby Dick’ izugarria eta hain gutxi loratu dugun ‘Odisea’ren agerpena?).

Baina orain gutxi agertu dute Pello Añorgaren (Oiartzun 1956) ‘Sendatzeko ametsak’, Pernando Amezketarraren pa-sadizoak gogora ekartzen di-tuen Kalixtoren ibilbideak kon-tatzen dituen. Haurtzaroan izeba Inesek ahoz kontatutako ipuinetan oinarritua, liburuak badu jori berezi eta arina, ho-rrelako xarma berezia.

Idazleak berak testua ira-kurtzeko ohar argiak eman dizkigu ‘Hitzaurrean’. Kalixto definitu egin du: «pertsonea xelebrea» dela gogoratuz, eta izebak ipuinok «misterioaren



mantelinaz bilduta, irribarre konplize xamur batez» konta-tzen zizkiola aipatuz. Hor dau-de jada liburuaren hiru ezauga-rr nabarmen: xelebrekeria, ja-kinmina sortzeko gogo (miste-rioa ez dut nik ikusi) eta xamur-tasuna. Gainera egileak ibilbide horiek gaika bildu ditu bere tes-tuan: batasuna bilatuz.

Kalixtoren ibilbide horiek ateraldiak dira, gogo bizitasu-nak pizturiko erantzun barre-garri, zuzen eta paradoxikoetan bermatua. Gehien batean, ate-raldiak dira Pello Añorgak ager-tu dituenak. Bat laburra aipa-tzekotan: «Askotan galdetzen omen zioten: -Heriotzari al dio-zu beldurrik?. Eta Kalixtok: -



Jaiotzeari eduki al nion, ba?» Jokoaren ostean, irri nimi-ñoa.

## Hitz jokoak

Bestelakoa da, baina ez guztiz, Joseba Mikel Ugaldek (Bermeo 1956) atera duen ‘Lazunen iza-riaz. Kontakizun irritsuak’ dei-turiko tamaina txikiko liburu-a.

## Ateraldiak eta umorea irakurtzen hasteko bidea



Eta berak atera duela diot, egi-lea bera delako editore. Eta be-raz zabalkunde urriko liburu-a izango dugu. Ez nuen nik eza-gutzen bere lana, nahiz eta euskal idazleak biltzen dituen Zubitegia web orrian bere his-toria kontatzen zaigun, eta ez da makala, animoa galdu gabe 2010etik aurrera baitabil libu-ruak argitaratzen bere patrika-tik ordainduz. Zorionez, makala bada zabalkundea, bere izena interneten jarritz gero, liburuak jaisteko modua dago.

Egileak hasiera-hasieran ai-tortu du bere anbizio falta, la-zunak bezala: «Irribarrea hel-buru duten nire ateraldiak, bat datoz lazunen izaerarekin, haiek bezala, dastatzeko xu-meak edo arruntak direlako». Joera askotakoa da izatez libu-rua, poliedrikoa.

Baina joera bik piztu didate atentzioa. Hitz jokoena eta idazleekin egindako jolasak. Ugaldek euskal esaera baten barnean egon daitezkeen beste esanahiak jartzen ditu agerian, eta hitz jokoak irribarrea sor-tzen badu ere, ez dago urrun kritika soziala, honetan bezala: «‘Hire neba karrikan da, eta ... Anttoni, nola bukatuko ze-nuke?’. Neskatoak klariona har-tu eta segurtasunez honela

bukatu zuen: ‘Irene bakarri-kan’». Hire neba/ Irene hitz jo-lasak esaldiaren barnean ze-go-en beste adierazpena jarri du agerian: baina zergatik muti-koak kalean eta neskatxak etxe barruan egon behar?

Idazleen izenekin eta badau-de jokoak: Anjel Lertxundirekin adibidez: «Ez da gauza bera: ‘Berandu da’ esatea, edo ‘Bera Andu da!’ esatea. (Anjel bera ere. Nonbaitera berandu iritsi-ko zenez, ‘Berandu da, Andu’ entzundakoa izango da). Edo Harkaitz Canorekin: «Ez da gauza bera, Harkaitz Cano peli batean ikustea, edo harkaitz ba-tean pelikano bat ikustea». Idazle horrekin, gainera, jola-sak aurrera egiten du, aktore bihurtzen duelako fikziozko zenbait pasartetan.

Ez da horrelakorik maiz egi-ten gure artean eta bere burua «idazle amateur ahul» gisa defi-nitu duen egileak proposamen umil honetan jokoaren aterean batzuk zabaldu ditu behintzat.

## Euskarazko lehen irakurketa haiek

Liburu biok gogora ekarri dizki-date nire euskarazko lehen ira-kurketak: Zorionez nire mai-suak ez ziren garbizaleak eta guretzako aukeratu zituzten irakurketa errazak hauek ziren. Kirikiño zen maisua horretan, umorea eta irakurketa ahul ze-bilenentzako aproposa, hiztegiz eta esamoldez aberatsa izan arren. Eta horren ondoren, ate-raldiak: Juan San Martinen ‘Zi-rikadak’ eta ‘Eztenkadak’. Eta Felix Bilbaoren ‘Ipuin-barreka’.

Esandakoa: ateraldiak eta umorea irakurtzen hasteko bi-deak.

## Buztina bezala

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Ane Zubeldiak diziplina asko jo ditu; i-tzultzailea, ‘Mejillon Tigre’ kolektiboko kidea (poesia eta gorputz adierazpenari loturiko elementu performatikoak –an-terkia, musika- lantzen dituen ‘spoken word’ genero hibridoaren erakusgarri), dantzan aritu da eta XXVII. Igartza Saria irabazlea. Horri guztiari gai-neratu behar zaio hauxe dela kaleratzen duen lehen poema liburu-a.

Lau ataletan banatzen di-ren 64 poematan Zubeldiak hitzekin jolastu eta haiek bi-hurritzen ditu esperimenta-zio poetikoaren adierazle gisa. Erabiltzen dituen nabari-dee-tatik honakoak nabarmendu daitezke: bertso laburrak, onomatopeiak eta hitzak idazteko distantzia, hots, batzuetan, haien arteko tartea luzeagoa; bestetan, itsatsirik: «(ezerezea-nezdaezet)», errepikapen ka-teatuek hots eta erritmo

KONTRA  
ANE ZUBELDIA  
MAGRIÑA  
Susa 88 or  
13,50 euro



efektuak eragiten dituztelarik. Efektu hori esanguratsua suertatzen da, musikan eta dantzan bezala, poema hauek gorputza-ren mugimenduekin eta zentzumenekin, behin eta berriz agertzen den ukimena-rekin, alegia, interpretatu ahal direlako.

Dena dela, paradoxa dirudien arren, bere estilo poetikoa lasaia eta gogoeta-tsua iruditu zait, isiltasunaren eta uraren aipamenak (lakuak, ibaiak, itsasoa) na-gusi. Izan ere, zer dago erabakigarri bizi ga-ren garaian? Zubeldiaren poemek bizi-tzeak dakarzkigun marruskadurak aza-leratzen dituzte, eta begirada eklektikoaz identifikatzen ditu gaur egungo aferak, esaterako, migranteek jaso-tzen duten tratua, umeen bi-deojokoak, betikotu ezinezko bozkarioa edo inkonformis-moa: «Ez dut epikan sinesten / eta / beraz / ez dut hizkun-tzarik».

Bertsoen bitartez irudika-tzen duen gizaki-izakia ez da zurruna, kontrakoa baizik, buztina bezalakoa. Behatzen eta sentitzen duenari buelta eman nahi izan dio poetak. Eta, izenburuak iragartzen duenez, kontra jotze horrek zidor interesgarriak irekitzen ditu. Eskertzekoa hain usu di-tugun igarobideak ez ibiltzeko.

## Neskameen jantziak

ARANTXA  
URRETABIZKAIA



Eskolan ikasi genuen noiz hasten ziren urtaroak, beti 21ean. Bai-na nork bere mugarriak ditu. Haur, ikasle eta gurasoek eskolak ixten direnean, laneko ordutegia aldatzen denean edo suertatu zaizkizun opo-rren hasiera egunean. Niretzat, bero itogarria bero, etxe ondoko haur par-ketxoan lehen neskame uniformeduna kulunka bat bultzatzen ikusi nuenean hasi zen uda. Heldu dira lehen udatia-rrak gurera (‘bañista’ esaten zaie ora-indik ere). Beraz, hasi da uda.

Ez dakit zergatik, baina gauza da uda-ko neskame uniformedunei buruzko tesi oso bat idatzi dezakedala. Hamarraldi-tan antzeman ditut, etxetik bertatik, as-palditik ikusi dut zein den haien jato-rria, haien janzkera, libre daudenetan aukeratzen duten bilgunea.

Filipinarrek osatzen zuten gehiengo-a aspalditxoan, haien atzetik magrebtarrak etorri ziren eta orain gehiengoak Hego Amerikan du jatorria. Soineko urdinskak edo arrosak eramaten zituzten aspaldian, aurreko mantal zuria gainetik, batzue-tan, kapela eta guzti.

Gogoan dut horrela jantzitako neska-me batekin egin nuela topo duela ha-marraldi pare bat, nire aurretik egun-karia erosten ari zela. Saltzaileak esan zi-dan harrotasunez ateratzen zirela ho-rrela jantziak egunkaria eta ogia eros-tera, horrek esan nahi zuelako etxe on batean ari zirela lanean, ez erdipurdi-ko batean.

Bada orain, bañisten neskameek os-pitaletako erizain eta laguntzaileen arro-pak janzten dituzte, galtzak eta goiko parte-a gehienetan urdin argiak, ba-tzuetan arrosak. Joan den urtean, Alar-dearen entsegu batean, etxera nindoa-la ‘mixta’ esaten zaion konpainiarekin egin nuen topo. Azalduko dut. Mixta, ez emakumeak onartzen dituelako, uda-tiarrez eta bertakoez osatua dagoelako baizik. Nire ondoan, erizainez jantzi-tako neskame bat, bi haur eskuetatik helduta zihoan. Bada, halako batean esan zuen: «niños, aplaudid, que viene papá». Eta ia-ia burmuina lehertu zi-tzaidan.